

**JOXEMARI KORTA SARIAK 2018
PREMIOS JOXEMARI KORTA 2018**

2018-11-13 Donostia-San Sebastián 13-11-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea eta herri agintari guztiok, herri ordezkari guztiok; ADEGI, SEA, CEBEK, CONFEBASK, BIDETIK Fundazioaren arduradunok; Jose Mari Kortaren senideok, saridunok, eta etorritako jaun-andreok, arratsalde on.

Javier María, Alicia, Miguel Angel, Luis, zorionak eta eskerrik asko zuen ekarpenarengatik. Sari honen bidez, euskal gizartearen aitortzea eta esker ona jasotzen duzue.

Badakigu lan taldea dela enpresa garatzeko ezinbesteko gakoa baina, lan talde horiek gidatzeko, **zuen lidergoa eta adorea nabarmentzekoak dira**. Zuen lidergoari esker, enpresek proiektu berriak abiarazi eta indartu egin dituzte, lehiakortasuna sustatu eta mundura ireki dira.

Lan asko egin duzue eta zuen enpresak garatzearekin batera, euskal ekosistema indartzen ere lagundu duzue. Zuen ibilbide eta ereduari esker, Euskadi herri lehiakorragoa da.

Korta Sarien bidez, euskal enpresa munduaren jarrera eta ekimena nabarmendu nahi dugu. Duela hamar urte krisi gogorra eta sakona hasi zen, gertu gertutik ezagutu duguna, eta enpresa munduari esker, **enpresa gizon eta enpresa emakumeei esker, krisi hori gaitzen ari gara**.

Ziur naiz egindako ahaleginak ekarpen positiboa izango duela: “auzolana” eredu hedatu behar izan dugu, elkarrekin asko ikasi dugu eta gure ekosistema indarberrituta irtengo da.

Hoy reconocemos toda una trayectoria personal y colectiva. Reconocemos un espíritu y unos valores que ejemplificó Jose Mari Korta y que tienen su continuidad.

Este acto es reconfortante porque estamos juntos. Sabemos que solo trabajando juntos vamos a lograr preservar ese espíritu, esos valores que atesoran la empresa vasca, las y los empresarios vascos, **un auténtico bien común de nuestro País.**

Es reconfortante trabajar juntos para fomentar la inversión, la innovación y la riqueza de Euskadi, las oportunidades de desarrollo y empleo. Entiendo que si no hubierais incorporado inversión e innovación en vuestras empresas, productos y servicios, posiblemente no habríais logrado seguir siendo competitivos. Hoy debemos mantener esa **confianza en la inversión e innovación** como factor de desarrollo futuro; es nuestra prioridad presupuestaria.

Es reconfortante compartir este reconocimiento con personas que son ejemplo de iniciativa y tesón. Personas que cuando reciben su Premio nos hablan de trabajo en equipo y trayectoria colectiva, nos hablan de retos y nuevos proyectos de futuro.

Javier María comenzó desarrollando proyectos de ingeniería y, a la vez, fundaba una empresa constructora. Es una persona emprendedora. Su actividad se ha ido extendiendo a nuevos campos y servicios, ahora se orienta también a las nuevas actividades medioambientales.

Alicia ha conjugado innovación, expansión y capacidad de adaptación a las nuevas tendencias en su sector. Es una persona creativa y con visión de futuro. Una persona comprometida con su entorno y con la responsabilidad de generar empleo de calidad.

Miguel Ángel comenzó con el diseño y fabricación de accesorios y ha crecido hasta ofrecer instalaciones completas. Es una persona abierta, que ha apostado por la expansión en los cinco continentes, demostrando el compromiso con las empresas proveedoras locales.

Luis ha combinado la empresa familiar con la apuesta por la juventud y la formación. Es una persona volcada en la excelencia, la competitividad internacional y el talento, con acuerdos pioneros con la Universidad y la incorporación de la mujer a la empresa.

Eskerrik asko! Etorkizuneko enpresarentzako **eredu bat zarete.**

Sari hauekin, Jose Mari Korta gogoan, beti lehenesten dugu etorkizuneko ikuspegi, erronka berriei erantzuna ematea.

Berak islatzen du etengabeko ahaleginaren eredia eta aurten erronka berri batean jarri dugu arreta, “**Industria, emakumeen lidergotzak azalerazten**” bideoak erakutsi digun bezala.

Hemen erakunde eta enpresa munduaren ordezkari za zabala elkartu gara eta, aurreko urteetan bezala, elkarrekin erantzun behar diogu erronka horri ere. Elkarrekin erraztu eta bideratu behar dugu emakumearen parte hartzea industrian eta enpresan.

Recibís este Premio y dais continuidad al legado y a los valores que Jose Mari Korta representó.

Vuestra vida ha sido emprender, formar equipos, invertir, apostar por la mejora continua, abrir la empresa al exterior, innovar, demostrar la responsabilidad con el entorno. Habéis hecho empresa y habéis contribuido a que Euskadi sea **un País de empresa**.

Vuestro ejemplo nos anima a seguir trabajando, a afrontar retos como el que este año apuntamos en favor de una mayor incorporación y protagonismo de la mujer en la industria y la empresa. Un objetivo compartido por las instituciones, las organizaciones empresariales y las propias empresas. **Un reto social** por el que merece la pena seguir trabajando juntos, **con dedicación, ilusión y compromiso**.

Javier María, Alicia, Miguel Angel, Luis, enpresaburuak zarete, arriskuak hartu dituzue, lan taldeak osatu dituzue, krisiei eta etorkizuneko erronkei aurre egin diezue. Zuen ereduak konfiantza eskaintzen digu eta hori da gure herriak behar duena. Elkartu garen guztion nahia da zuen eredutik ikastea eta, zuei, **dugun indar guztia ematea**, orain arteko bidean aurrera jarraitu dezazuen.

Jose Mari Korta gogoan, jaso ezazue gure esker ona, bihotz bihotzez zorionak!